Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

935

EBAZPENA, 2009ko urriaren 6koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Ura Uraren Euskal Agentziak Lizartzan (Gipuzkoa) Elbarrena zubia ordezkatzeko eta Arrateko zubi berria eraikitzeko sustatu duen proiektuak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko prozedura ez duela behar erabakitzeko dena.

2009ko ekainaren 29an, Ura, Uraren Euskal Agentziak honakoa bidali zion Ingurumen Sailburuordetza honi: Ura, Uraren Euskal Agentziak Lizartzan (Gipuzkoa) Elbarrena zubia ordezkatzeko eta Arrateko zubi berria eraikitzeko sustatu duen proiektuaren ingurugiro-dokumentua. Bertan, proiektuaren ezaugarriak, kokalekua eta izan ditzakeen eraginak jaso dira, ingurumen-organoak adieraz dezan ea beharrezkoa den proiektu horrek ingurumenean duen eragina ebaluatzea.

Aipatutako proiektuan honakoak egingo dira:

Egun dagoen zubia beste bategatik ordezkatuko da. Zubia Lizartza udalerrian dago eta Tolosatik datorren GI-2135 errepidetik Lizartzako erdigunera sartzeko lehenengo zubia da.

«Araxes ibaiaren azterketa hidraulikoa, Insalus uraren instalazioen eta Lizartzako industrialdearen artean dagoen zatian» izenekoaren ondorioetan, Arrateko zubia agertzen da 100 eta 500 urteko etorbideei oztopo egiten dienen artean. Izan ere, taula ur-laminaren azpian dago eta ubide nagusiaren barruan, erdiko ostikoa dago. Hori horrela, erdiko ostikoa deuseztatzeko eta zubiaren taula aldatzeko gomendatu da, eta, horrek, zubi berria egin beharra dakar.

3 aukera proposatu dira:

Egungo zubiaren estriboak erabiltzea.

Estribo berriak egitea, ubidearen egungo zabalerari eutsiz.

Estribo berriak egitea, ubidearen zabalera handituz.

Egungo estriboei buruz egingo diren azterketen arabera eta proposatutako irtenbide bakoitzaren eredu hidraulikoaren emaitzaren arabera zehaztuko da zein aukera erabili.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

935

RESOLUCIÓN de 6 de octubre de 2009, de la Viceconsejera de Medio Ambiente, por la que se adopta la decisión de no someter al procedimiento de evaluación de impacto ambiental el proyecto de sustitución del puente Elbarrena y construcción del nuevo puente de Arrate, promovido por Ura, Agencia Vasca del Agua, en Lizartza, Gipuzkoa.

Resultando que con fecha 29 de junio de 2009, la Agencia Vasca del Agua, Ura, remitió a esta Viceconsejería de Medio Ambiente un documento ambiental del proyecto de sustitución del puente Elbarrena y construcción del nuevo puente de Arrate, promovido por Ura, Agencia Vasca del Agua, en Lizartza, Gipuzkoa, incluyendo sus características, ubicación y potenciales impactos, al objeto de que el órgano ambiental se pronunciara sobre la necesidad de su sometimiento al procedimiento de evaluación de impacto ambiental.

Resultando que el citado proyecto consiste en:

Sustitución del actual puente por uno nuevo. El puente se localiza en el término municipal de Lizartza y constituye el primer puente de acceso al núcleo de Lizartza desde la carretera GI-2135 procedente de Tolosa.

En las conclusiones del «Estudio hidráulico del río Araxes del tramo comprendido entre las instalaciones de aguas Insalus y el polígono industrial de Lizartza» figura el puente de Arrate entre los que suponen un obstáculo para las avenidas de los 100 y 500 años por encontrarse el tablero por debajo de la lámina de agua y también por disponer de una pila central dentro del cauce principal, por lo que se recomienda la eliminación de la pila central y modificación del tablero del puente, lo que obliga a la ejecución de un nuevo puente.

Se plantean 3 alternativas:

Emplear los estribos de puente existente.

Ejecutar los estribos nuevos manteniendo la anchura actual del cauce.

Ejecutar los estribos nuevos ampliando la anchura del cauce.

La elección de una u otra vendrá determinada por los sondeos que se hagan a los estribos actuales y los resultados del modelo hidráulico a cada una de las soluciones propuestas.

Zubia ordezkatzeko egingo diren jarduerak honakoak dira:

Eraispenak eta lur-mugimenduak: lehenengo eta behin, zirkulazioa desbideratuko da. Ondoren, zubia eraitsiko da, eta, gero, behin-behinean induskatu da, zubiaren estriboak egiteko.

Zubiaren egitura: zubi berria eraikiko da, eta, horretarako, estriboak eta taula eraiki beharko dira.

Ubidearen ertzen tratamendua: zubiaren kokalekuko ubideen ertzak babestuko dira, higatu ez daitezen.

Zubia urbanizatzea eta zerbitzuak jartzea.

Aipatutako proiektuaren betearazpenak Natura 2000 Europako Ekologi Sareko parte diren espazioei eragiten die, zehazki, garrantzia komunitarioko lekutzat jotakoei (ES2120012 «Araxes Ibaia / Río Araxes»).

Proiektua ez dago zuzenean lotuta aipatutako 2000 Natura lekuaren kudeaketarekin, eta ezin da esan horretarako beharrezkoa denik.

Ingurumeneko eraginaren ebaluaziorako Legearen testu bat egina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, arau horretako I. eranskinean ez dauden proiektuek 2000 Natura sareko espazioei zuzenean edo zeharka eragin badiezaiekete, ingurumenean duten eragina ebaluatuko da, baldin eta ingurumen-organoak hori zehazten badu kasu bakoitzean, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuko III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera, eta proiektuaren ondorioak jasan dituzten administrazioak, pertsonak eta erakundeak kontsultatu ondoren.

2009ko uztailaren 16an, Ingurumen Sailburuordetzak proiektuaren betearazpenaren ondorioak jasan dituzten administrazioak, pertsonak eta erakundeak kontsultatu zituen, Ingurumeneko eraginaren ebaluaziorako Legearen testu bat egina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko 17. artikuluaren arabera.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Orokorraren erantzunak jaso dira.

Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak honakoa ondorioztatu du: Natura 2000 sareari buruzko eragin hautemangarriak ezin daitezke aurreikusi, betiere, aipatutako txostenean zehaztutako neurri zuzentzaile batzuk hartzen badira. Ondorioz, «Natura 2000 sa-

Las principales actuaciones que se llevarán a cabo en la sustitución del puente consisten en:

Demoliciones y movimientos de tierra: previamente se realizará el desvío del tráfico, con lo que se procederá a la demolición del puente y posterior excavación provisional para la ejecución de los estribos del puente.

Estructura del puente: se construirá un nuevo puente, para lo cual será necesaria la construcción de estribos y el tablero del mismo.

Tratamiento de márgenes del cauce: se protegerán las márgenes del cauce en las que se ubique el puente para evitar que se erosionen.

Urbanización del puente y reposición de servicios.

Resultando que la ejecución del proyecto de referencia conlleva la afección a espacios que forman parte de la Red Ecológica Europea Natura 2000, en concreto a terrenos catalogados como Lugares de Importancia Comunitaria (LIC) ES2120012 «Araxes Ibaia / Río Araxes».

Resultando que el proyecto no tiene relación directa con la gestión del lugar Natura 2000 citado, ni se puede decir que sea necesario para la misma.

Resultando que, de conformidad con el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental, los proyectos no incluidos en el anejo I de la citada norma que puedan afectar directa o indirectamente a los espacios de la Red Natura 2000, estarán sometidos a evaluación de impacto ambiental cuando así lo determine el órgano ambiental en cada caso, de acuerdo con los criterios establecidos en el anejo III del citado Real Decreto Legislativo, y previa consulta a las administraciones, personas e instituciones afectadas por la realización del proyecto.

Resultando que con fecha 16 de julio de 2009, la Viceconsejería de Medio Ambiente consultó a las administraciones, personas e instituciones afectadas por la realización del proyecto, de acuerdo con lo previsto en el artículo 17 del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental.

Resultando que se han recibido las respuestas de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, de la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco y de la Dirección General de Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Considerando que la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco ha concluido que no son previsibles afecciones apreciables sobre la Red Natura 2000 siempre y cuando se adopten determinadas medidas correctoras detalladas en el citado informe, concluyendo, por tanto, que «se

reari buruzko eragin hautemangarriak baztertu dira, neurri gehigarriak hartuz (…), eta ez da beharrezkoa proiektuak ingurumenean duen eragina ebaluatzea, baldin eta adierazitako neurriak betetzen badira».

Jasotako gainerako erantzunetatik ez da ondorioztatu ingurumenaren aurkako eragin garrantzitsuak daudenik eta proiektuak ingurumenean duen eragina ebaluatu behar denik.

Espedienteko txosten teknikoa idazteko honakoak hartu dira kontuan: aipatutako proiektuaren ezaugarriak, Ingurumeneko eraginaren ebaluaziorako Legearen testu bat egina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko III. eranskineko irizpideak, eta kontsultetan jasotako erantzunak. Txosten horren arabera, proiektuak ez du ingurumenean eragin txar nabarmenik izango, betiere, sustatzaileak adierazitako neurri babesleak eta zuzentzaileak eta ebazpen honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

Organo honek ebazpen hau idazteko eskumena du, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 25eko 340/2005 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Aztertu dira Ingurumena babesteko EAEko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezarri duen azaroaren 25eko 340/2005 Dekretua, eta horrenbestez, honakoa

EBATZI DUT:

1.– Ura, Uraren Euskal Agentziak Lizartzan Elbarrena zubia ordezkatzeko eta Arrateko zubi berria eraikitzeko sustatzen duen proiektuak ez duela behar ingurumenean duen eraginaren ebaluaziorik, baina proiektu hori burutzeko ondorengo baldintzak bete behar dituela:

Obrak egiterakoan kontuan hartuko dira proiektuaren sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan proposatzen diren neurri babesleak eta zuzentzaileak. Honakoa da aurkeztutako dokumentazioa: «Documento ambiental del proyecto de sustitución del puente Elbarrena en Lizartza/Lizartzako Elbarrena zubiaren ordezkapenaren proiektuaren ingurugiro dokumentua. Mayo de 2008/2008ko maiatza», 2009ko ekainaren 29an Ingurumen Sailburuordetzak igorritakoa.

descartan afecciones apreciables sobre la Red Natura 2000, con la adopción de unas medidas adicionales (…) y no resulta necesario someter el proyecto al procedimiento de evaluación de impacto ambiental, de modo condicionado al cumplimiento de las medidas señaladas».

Considerando que del resto de respuestas recibidas no se infiere la posible existencia de impactos ambientales adversos significativos que aconsejen someter el proyecto al procedimiento de evaluación de impacto ambiental.

Considerando que el informe técnico incluido en el expediente, redactado a la vista de las características del proyecto de referencia, de los criterios del anexo III del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental y de las respuestas recibidas en el trámite de consultas, concluye que el proyecto no tendrá efectos negativos significativos sobre el medio ambiente, siempre que se adopten las medidas protectoras y correctoras indicadas por el promotor y las condiciones que se establecen en la presente Resolución.

Considerando la competencia de este Órgano para el dictado de la presente Resolución, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio,

RESUELVO:

1.– No someter a evaluación de impacto ambiental el proyecto de sustitución del puente Elbarrena y construcción del nuevo puente de Arrate, promovido por Ura, Agencia Vasca del Agua, en Lizartza, condicionando la ejecución del proyecto al cumplimiento de las condiciones siguientes:

Las obras se llevarán a cabo de acuerdo con las medidas protectoras y correctoras que se proponen en la documentación presentada por el promotor del proyecto: «Documento ambiental del proyecto de sustitución del puente Elbarrena en Lizartza/ Lizartzako Elbarrena zubiaren ordezkapenaren proiektuaren ingurugiro dokumentua. Mayo de 2008/ 2008ko maiatza», remitido a la Viceconsejería de Medio Ambiente en fecha 29 de junio de 2009.

Obrak egiteko epea mugatu egingo da, fauna erdi urtarraren ugalketa-zikloan eragozpenak sortzea saihesteko. Martxoaren 15etik uztailaren 31rako tartean, zehazki, ez da obrarik egingo (Gipuzkoako Lurralde Historikoan Bisoi Europarraren Mustela lutreola (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onesten duen 2004ko maiatzaren 12ko Foru Agindua).

Hala badagokio, estribo berriak ubidearen kanpoko mugatik atzeraemango dira. Ertzetan egiturarik gabeko leku bat geldituko da, urbazterreko ekosistemei lotutako fauna-espezieen (bisoi europarra, igaraba) lekualdaketa errazteko.

Neurri hori posible ez balitz (baldintza hidraulikoen ondorioz edo dauden estriboak berrerabili egiten direlako eta horiek ez dituztelako baldintza hori betetzen) zubiaren iragazkortasuna hobetzen duten fauna-pasabideak (arrapalak, erlaitzak, plataforma paraleloak, etab.) jarri beharko dira.

Foru aldundiko Nekazaritzako Landa Inguruneaen Garapenerako Sailak nahitaezko txostena egin beharko du proiektuari buruz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Bisoi europarraren (Mustela lutreola) Kudeaketa Planean (2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduaren bidez onetsitakoa) ezarritakoa betetzeko.

Jarduera-mugak balizatuko dira, makinak beharrezko ez denean alde sentikorretatik pasatzea saihesteko.

Makinekin maniobran ibiltzeko leku eta sarbideak oso ondo zehaztuta egongo dira, eta, horrela, ez die landaretza natural edo erdi naturala duten lekuei eragingo.

Beharrezko neurriak hartuko dira (urak bideratzeko gailuak eta solidoak gordetzeko sistemak), euriubidera doazen elementu solido eta likidoak murrizteko.

Obrak egiterakoan ingurumenera ahalik eta kutsatzaile gutxien igortzeko ahalegina egingo da. Horretarako, beharrezko neurriak hartuko dira blokeen erorketak, detritu-jarioak edo solido esekien arrasteak saihesteko, ur-ingurumenean eragin kaltegarriak sor baditzakete. Obrako ibilgailuak mantendu eta horiek erregaiz hornitzeko operazioak eta tailerreko jarduerak ezingo dira beren beregi horretarako egokitu ez diren zonetan egin.

Debekatuta egongo da landaretza natural edo erdi naturala dagoen lekuetan materiala biltzea.

Obrak egitean, hautsa eta zarata kontrolatzeko neurriak hartuko dira.

Se limitará el periodo de obras para evitar molestias en el ciclo reproductivo de la fauna semiacuática. En concreto no deberán realizarse las obras en el periodo comprendido entre el 15 de marzo y el 31 de julio (Orden Foral de 12 de mayo de 2004 por la que se aprueba el Plan de Gestión del Visón Europeo Mustela lutreola (Linnaeus, 1761) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa).

En su caso, los nuevos estribos se retranquearán desde el límite exterior del cauce, de forma que se deje una zona libre de cualquier estructura en sus márgenes que facilite el desplazamiento de las especies faunísticas ligadas a los ecosistemas ribereños (visón europeo, nutria).

Si esta medida no fuera posible (por condicionantes hidráulicos o porque se reutilizan los estribos existentes y éstos no cumplen esta condición) se deberán colocar pasos de fauna (rampas, repisas o plataformas paralelas, etc.) que mejoren la permeabilidad del puente.

El proyecto deberá ser sometido a informe preceptivo del Departamento de Desarrollo del Medio Rural de la Diputación Foral de Agricultura, en cumplimiento de lo estipulado en el Plan de Gestión del Visón europeo (Mustela lutreola) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado mediante Orden Foral de 12 de mayo de 2004.

Se balizarán los límites de actuación para evitar tránsitos innecesarios de maquinaria por zonas sensibles.

Los accesos y zonas de maniobra de maquinaria quedarán perfectamente definidos de modo que no se afecte a zonas con vegetación natural o seminatural.

Se adoptarán las medidas necesarias (dispositivos de conducción de aguas y sistemas de retención de sólidos) para minimizar el aporte de elementos sólidos y líquidos al cauce fluvial.

Las obras deberán realizarse procurando la mínima emisión de contaminantes al medio. Para ello se tomarán las medidas oportunas para evitar caídas de bloques, flujos de detritus o arrastre de sólidos en suspensión que de alguna manera puedan ocasionar efectos nocivos sobre el medio acuático. No se permitirán las operaciones de mantenimiento y carga de combustible de los vehículos de obra, así como las actividades propias de taller, en zonas que no estén expresamente destinadas y acondicionadas para ello.

Quedará prohibido el acopio de materiales en zonas con vegetación natural o seminatural.

Se adoptarán medidas destinadas al control de polvo y ruido en fase de obras.

Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuko 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zonifikazio akustiko, kalitate-helburu eta igorpen akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen soinu-igorpenei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokie, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-igorpenak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

Landare berriak landatzean, espezie autoktonoak erabiliko dira soilik eta aldaxkak bertako aleetatik hartuko dira.

Gehien ikusten diren elementu eta eraginak paisaian integratzea sustatuko da, bereziki, estribo berriei dagokienez, egin behar badira.

Zebra muskuilua bezalako espezie inbaditzaileen aurrean kontrol-neurriak hartuko dira (Ebroko Ur Konfederazioak onetsitako desinfektatze-protokoloak betetzea) eta Panpako belarra, japoniar falopia edo hainbat banbu mota bezalako landaretza-espezien fenomeno inbaditzaileak saihesteko neurriak hartuko dira.

Obrek irauten duten bitartean sortzen diren hondakin ezberdinak, besteak beste, enbalajeak, baztertzeko lehengaiak, indusketen edo eraispenen soberakinak eta garbiketa-kanpainatik sortutakoak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta araudi berariazkoetan aurreikusitakoarekin bat etorriz kudeatuko dira.

Hondakinak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak badira, baimendutako hondakinen balorizatzailera eraman behar dira.

Hondakinek balorazio tekniko, ekonomiko edo ingurumeneko balorazio bideragarririk ez dutela behar bezala ziurtatu ondoren soilik ezabatu ahal izango dira.

Hondakindegira eraman beharreko hondakinak abenduaren 27ko 1481/2001eko Errege-dekretuan (hondakinak hondakindegira eramatearen bidez ezabatzeari buruzkoa) ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Betelanetarako erabiliko diren materialak otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren (hondakinak zabortegian utzita ezabatzeari eta betelanak egiteari buruzkoa) arabera eta dekretu horrekin kudeatuko dira.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 22 del Real Decreto 1367/2007, de 19 de octubre, por el que se desarrolla la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido, en lo referente a zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas, la maquinaria utilizada en la fase de obras debe ajustarse a las prescripciones establecidas en la legislación vigente referente a emisiones sonoras de maquinaria de uso al aire libre, y en particular, cuando les sea de aplicación, a lo establecido en el Real Decreto 212/2002, de 22 de febrero, por el que se regulan las emisiones sonoras en el entorno debidas a determinadas máquinas de uso al aire libre, y en las normas complementarias.

En las actuaciones de revegetación se emplearán en su totalidad especies autóctonas, y las estaquillas procederán de ejemplares locales.

Se deberá favorecer la integración paisajística de los elementos e impactos más visibles, en particular de los nuevos estribos, si es que hubieran de realizarse.

Se adoptarán medidas de control frente a especies invasoras como el mejillón cebra (cumplir protocolos de desinfección aprobados por la Confederación Hidrográfica del Ebro), así como medidas para evitar fenómenos invasivos de especies vegetales como la hierba de la Pampa, Falopia japonesa o diversos tipos de bambú.

Los diferentes residuos generados durante las obras, incluyéndose embalajes, materias primas de rechazo, sobrantes de excavación y demolición, así como los residuos procedentes de la campaña de limpieza, se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos y normativas específicas.

Todos los residuos cuya valorización resulte técnica y económicamente viable deberán ser remitidos a valorizador de residuos debidamente autorizado.

Los residuos únicamente podrán destinarse a eliminación si previamente queda debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o ambientalmente viable.

Los residuos con destino a vertedero se gestionarán de acuerdo con el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero.

Los materiales con destino a relleno se gestionarán de acuerdo con y con el Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos.

Eraikuntza- eta eraiste-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuko 4. artikuluko 1.a epigrafean xedatutakoaren arabera, obraren egikaritze-proiektuan honakoa sartu beharko da: eraikuntza- eta eraiste-hondakinen kudeaketaren azterketa. Azterketa horretan, era berean, zubia eraistean sortu diren hondakin arriskutsuen inbentarioa sartu beharko da, aukerako baztertzea aurreikusi beharko da eta baimendutako kudeatzaileei bidaltzen zaiela bermatuko da.

Olio erabilia kudatzeko honakoak hartuko dira kontuan: industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua eta olio erabiliaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretua.

Baimendutako kudeatzaileei aurkeztu arte, amaitutako olioen biltegiratzea estalpeko lekuetan, behar bezala etiketatutako ontzi hermetikoetan, zolata iragazgaitzean, ontzien barruan edo isuri edo ihes posibleak eusteko sistemetan egin beharko da.

Indusketa eta lur-mugimenduak egiteko garaian lurzoruaren kutsaduraren aztarnaren bat aurkituz gero, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 10.2 artikuluan jasotzen duenaren arabera jokatuko da.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako gainerako xedapenak gorabehera, obretan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, berehala jakinaraziko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari; gero, beharrezkoa izanez gero, berak erabakiko du zer neurri ezarri.

Lur-mugimenduak dauden bitartean, landaretza daukaten lur-eremuak kendu, metatu eta era bereizian zabalduko dira, aldatutako eremuan landare berriak jartzea eta eremua lehengoratzea errazteko. Landare berriak landatzean kenduko den landaretza-lurra modu egokian biltegiratuko da, lurra ez trinkotzeko, modu desegokian ez pilatzeko eta euria egiten duen egunetan gaizki ez manipulatzeko.

Obrak bukatu ondoren, alderdia ondo garbitu beharko da, proiektuaren eragin-eremuko obra-hondakin guztiak kenduz. Garbiketa-lanetatik irteten diren hondakinak dauden lekutik aterako dira eta aurreko ataletan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

2.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Lizartzako Udalari, eta Ura, Uraren Euskal Agentziari.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

De acuerdo con lo estipulado en el artículo 4 epígrafe 1.a. del Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición, el proyecto de ejecución de la obra deberá incluir un estudio de gestión de residuos de construcción y demolición. Este estudio deberá contener, asimismo, un inventario de los residuos peligrosos que se generarán en la demolición del puente, así como prever su retirada selectiva y asegurar su envío a gestores autorizados.

Los aceites usados se deberán gestionar de conformidad con el Real Decreto 679/2006, de 2 de junio, por el que se regula la gestión de los aceites industriales usados y en el Decreto 259/1998, de 29 de septiembre, por el que se regula la gestión del aceite usado en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Hasta el momento de su entrega a gestor autorizado, el almacenamiento de aceites agotados se realizará en espacios bajo cubierta, en recipientes estancos debidamente etiquetados, sobre solera impermeable y en el interior de cubetos o sistemas de contención de posibles derrames o fugas.

En el caso de que en el transcurso de las obras de excavación y movimiento de tierras se detecten indicios de contaminación del suelo deberá actuarse de acuerdo con lo previsto en el art. 10.2 de la Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.

Sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, si en el transcurso de las obras se produjera algún hallazgo que suponga un indicio de carácter arqueológico, se informará inmediatamente al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa que será quién indique las medidas a adoptar.

Durante los movimientos de tierra, la tierra vegetal se retirará, acopiará y extenderá de forma diferenciada, con objeto de facilitar las labores de restauración y revegetación de los espacios afectados. La tierra vegetal retirada para su posterior utilización en las labores de revegetación, será almacenada de forma apropiada, evitando su compactación, acopio inadecuado y manipulación en días de lluvia.

Una vez finalizada la obra se llevará a cabo una rigurosa campaña de limpieza, debiendo quedar el área de influencia del proyecto totalmente limpia de restos de obras. Los residuos resultantes de las operaciones de limpieza, serán desalojados de la zona y gestionados de conformidad con lo dispuesto en los apartados anteriores.

2.– Comunicar el contenido de la presente Resolución al promotor del proyecto, Ura, Agencia Vasca del Agua y al Ayuntamiento de Lizartza.

3.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburu andrearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita. Horrela ezartzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 114. artikuluan eta ondorengoetan; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 6a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.

4.– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Excma. Sra. Consejera de Medio Ambiente Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Júridico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2009.

La Viceconsejera de Medio Ambiente,
NIEVES TERÁN VERGARA.